**ERREPORTAJEA** TAUPADA ANTZERKI TALDEAREN 25. URTEURRENA · **GEHIGARRI BEREZIA** BEROGAILUAK · **KIROLA** BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETAKO ELGOIBARTARREN SAILKAPENA

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko azaroaren 15a/X. urtea/424. zkia



# TAUPADA, 25 urte antzerkiaren bihotzean

"ARTEA, EGIA EZAGUTZEN LAGUNTZEN DUEN GEZURRA DA" (P. Picasso)

# BASKO REN

r"7" GARBIKETA • MANTENIMENDUA
AUTOEN ALOKAIRUA
Sigmako industrialdea - 7. eta 8. pabiloiak

quip pripTsyjr 03 287

## MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI ETA PREST!

GARBIKETA
2,50 €
GARBIKETA AUTOMATIKO PUBLIKOA



KONPONKETA TAIIERRA



MANTENIMENDU OROKORRA OUO, BALAZTA
eta PNEUMATIKOEN AIDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA

GARBIKETA BEREZIA
4,50 €

GARBIKETA
LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
3,50 €

SIGMAKO INDUSTRIAIDEAN GAUDE

# ZEZEN-BIDE
## AUTO ESKOLA

**San Frantzisko, 43 -1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ordutegi berria

**1 0:00etatik-1 2:30era**
**1 5:00etatik-20:30era**



**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 455 • 20600 EIBAR



# Punta-puntako teknologia

ko abenduaren 24an BARREN estreinakoz kaleratu genuenean, imwilusioa eta lanerako gogoak sobran bagenituen ere, teknologia oinarri-oinarrizkoa zen. Hasierako urratsak sobranterik gabe eman genituen arren, bagenekien aurrera egin nahi bagenuen teknologiari ezingo geniola bizkarrik eman. Urteetan aurrera egin ahala, teknologia lekua hartzen joan da eta, gaur egun, puntako teknologia daukagu.

- Lokala: Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen lokalean hasi ginen lanean, baina Udalak berehala eskaini zigun Nafarroa plazako lokala. Ordutik bertan gaude.
- Ordenadoreak: Hasieran, kazetariak etxean zuen ordenadorean idazten genituen testuak. Orain, berriz, bai maketatzeko eta bai testuak idazteko, punta-puntako ordenadoreak dauzkagu.
- Laser inpresora eta eskanerra: Laser inpresora bat daukagu testuak eta zuri beltzeko gauzak inprimatzeko eta beste bat koloretakoa publizitaterako. Eskanerra ere berria da, diapositibak eta negatiboak eskaneatzeko aukera ematen du.
- 4 ordenadore interneterako konexioarekin ADSL sistemapean: Posta elektronikoaren abantailak batetik, eta internetek eskaintzen duen informazio sarea esku-eskura dauzkagu.
- 2 argazki kamara digital: Argazki kamarak modernoak dauzkagu, ez daukagu erretratuak errebelatzera joan beharrik.

Ikusten duzuen moduan, BARREN itxuraz ateratzeko teknologiari ezin diogu bizkarrik eman.



## 18 urte...

18 urte beteko dira datorren azaroaren 27an, 18 urte bortxaz eraman zituztenetik, 18 urte espainiar inperioko kartzela ezberdinetan zehar eduki dituztela, 18 urteko dispertsioa, denok dakigu nork diseinatua eta are larriagoa dena nork lagundua, 18 urtetako aldea, Inazio eta Iñaki (beste hamaika lagunekin) atxilotu zituztenetik, Fernan eraman duten arte. 18 urte luze eta gordin herri honek bere askatasunerako bidean egin dituenak, eta hala ere gaur egun oraindik borrokan jarraitu beharrean, herri honek bereak dituen eskubideak berreskuratu nahian. 1200, 1512, 1936,... batzuk beti borrokan eta beste batzuk ordea betikoan, saldukerian, aukera duten guztietan, saldukerian.

Azkenengoa, "soberania conpartida" delako hori, ja, norbaitek bere burujabetza beste norbaitekin banandu nahi baduela, asteko burujabe izan beharko da, hemen gertatzen ez dena. Erabakia ordea 6ren artean hartu behar bada, ustez 3ri, ordezkatzen dionak ezin du inolaz ere besteengatik erabaki ez bai du inolako baliorik. Hala eta guztiz haurreko bi kontuak beteko balira, norbait beste batekin elkarkidetuz gero, bien artean begirunea egon beharko da eta gure kasuan hau bai ez dela sekula santan beteko, bai frantziar zein espainiar inperioak, beti alegindu dira gu menderatzen, eta hortan jarraitzen dute, konturatu gabe amore emango ez degula benetako herri askea izan arte.

P.D.: heldu al da Zuera aldera Kaxianon Zorionak kanta?

Nestor Fuentes

1111111111

Kexak ........................................ 5

motz MOtZ ........................................ 10

gehigarria ........................................ 13

kiRolAk ........................................ 20

aGenda ........................................ 24

2002-X1-15

# Urruzunoren begi ezkutua

## Tamainaren garrantzia



Azkenaldiko dena laburtu behar eroa darabilkit buruan, kabitu beharrak eraginda ito beharrean dabil informazioa, motxaren motxez, maiz inora ez doala konturatu gabe...

Joan zen astean, lagun batek bere amari Calvin Klein kantzontziloak erosteko esan zion. Itxura denez, amaren memoriaz fio ez eta, badaezpada, ohar bat jarri zion mahai gainean etxetik alde egin aurretik: "ama, CK kantzontzilluak erosi. A! Ta begirau king-kong-eko postian ia asteburuan ze kontzertu dauan!"

Eta ama, txintxo txintxo, han joan zen kalera erosketetarako karrotxo eta guzti. Dendara sartu eta semeak eskaturiko kantzontziloak ez zituztela ezagutzen ikusita kalera irten eta zutabean beste askoren gainean itsatsirik zegoen paperari begiratu zion: S.A., zioen.

Gauean, semea etxera ailegatzean esan zion: "seme, Kevin Costner kantzontzilluak eztittuk existitzen eta, ze kontzertu? Enpresaren baten iragarkia zuan king-kong-ekoa, sociedad anonima besteik etzian jartzen!Ai!, baina ze mundutan bizi haiz?"

Dena den, ez larritu. Bada oraindik siglifikatu eta konprimitu gabeko lekurik, tamainari behar besteko garrantzia ematen zaion paradisurik. Ba al dakizue Ondarrun nola deitzen dieten farolei? LUZELEKTRIKA PALOPOSTI!

Uxue Alberdi

### MENDAROKO GIZASEME AHALTSUAK

Bazen behin gizon ahaltsu bat bere herria nahierara aldatu zuena. Herrian egin beharreko gauzak imajinatzen zituen, txoferrari imajinatu ahala hara edo hona eramateko esaten zion, han edo hemen zer egin behar zuen imajinatzeko.

Gero, etxean, bere jauregian, egunean zehar imajinatutako proiektuak marrazten zituen. Hasieran arkatzez eskema soil batzuk egiten zituen; geroago ordea, informatikoak kontratatu zituen berak imajinatutakoak hiru dimentsiotan irudika zitzaten. Gainera, marrazkiok herrian zehar ipintzen zituen panel zabal eta disdiratsutan. Horrela eraiki zituzten bada Udaletxe postmodernoa, pistinak, txaletak eta abarrak.

Baina gizon ahaltsua ez zen pozik geratu, eraikitako guztiak marrazkiak iruditzen baizitzaizkion, bere bizitza arkatzez egindako eskema soila zela ohartu baitzen.

A. U. Mendaroko Motxailaken izenean
72313752G

### EUSKAL HERRIAK BERE ESKUBIDEAK!

Egun bizi dugun gatazka politikoaren oinarriak herri bezela dugun eskubideen ukazioan dutela oinarria. Euskal Herria zazpi probintziak osatzen dugula. Euskaldunoi soil soilik dagokigula gure geroaren erabakiak hartzea. Horiek izan dira euskal eragile, alderdi eta sindikato aunitz gatazkaren konponbiderako finkatu dituzten gutxiengoak, tartean Lizarra-Garazi akordioan. Egungo marko politikoak, Amejoramendua, Autonomia Estatutua, Frantziak agintzen duena, inposatuak diren neurrian, gainditze bidean jarri behar direla. Helburua orain Espainian eroso bizi izatea da. Helburua orain ez da gure etorkizuna guk erabakitzea baizik eta Espainian eroso bizi nahi dugun erabakitzea, beste aukerarik gabe. Eta hau, noski, gure Elkarte Autonomoan, Baskongadetan.

Orain dela 25 urte antzeko kinkan jarri zitzaigun: edo Autonomo Estatutua edo ezer ez. Nafarroan hori ere ez: derrigorrez ezarri baitzitzaion Amejoramendua. Esatutoarekin Presoak kalera, Estatutoarekin Nafarroa Euskadi izango da, Esatutoarekin... horiek ziren kaleak irakurri ahal genituenak. 23 urte geroago gatazkak bere gordintasunean jarraitzen du. Egoera nahasi honetan eta aurrera begira, helduleku garbiei eustea komeni dela uste dut, proposamen guztiak bere sakontasunean aztertu eta Euskal Herriaren interesei begiratzea beste edozeren gainetik.

P.M.
15357275-Z

ASTE KARIA

BaRRen

Nata: enparantza, 2
208 70 ELGOIBAR
_943 74 41 12
Publizitatea: . 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea KAZETARIA I rati Agirreaz_aldegi, PueuzrrxrEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ADIAINISTRAZIOA Amaia Rodrigez GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Mertinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzan Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TMADA 4.025 ale LEGE GOROAILUA SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

ELGOIBARKO IZARRA

*Elgoibarko Udalak, Eustw Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa
esker

DANOBAT
GOITI
GRUPO DANOBAT
ESTARTA
GRUPO DANOBAT



## KEXAK

• Manuel Jauregik, bere izenean ondorengo kexa hau azaltzeko eskatu digu: "Elgoibarko gazteek aurrean ikusten duten guztia apurtzen dute. Gure etxe aurreko iturria apurtu dute oraingoan. Ez dute errespeturik, ez pertsonengatik, ezta ingurunearengatik ere. Dena apurtzen dute, eta zerbait esanez gero, erantzun txarrak jasotzen ditugu. Kasurik egingo ez duten arren, apurtzen dutena konpontzeko dirua herritarren poltsikotik ateratzen dela esango nieke gazte hauei, eta ez dugula horrelako zigorrik merezi. Herri hau konpondu egin behar da, ez apurtu".



• King-Kongeko autobus geltokiko kristalak apurtuta daude. Gizon batek esan digunez, adineko jende asko egoten da ospitalera joateko autobusaren zain, eta euria egiten duenean busti egiten dira: "Autobusa berandu etortzen da askotan, eta aterkia eduki arren, jendea busti egiten da. Larunbatetan dena apurtzen dute, eta gero ez dute ezer konpontzen".

## ? GALDE

• Lagun Zaharreko lantegia dagoen tokian aparkalekuak kendu behar al dituzte?

Inbisa enpresak bulego eta lantegi bethak janiko ditu martxan, eta emakume batek, bertako aparkalekua nola antolatu behar duten galdetu digu.

Udalera jo dugu, eta esan digutenez, aparkalekua berdin mantenduko da.

## TXALOA

• Emakume batek Inazio Bereziartuak Dantza Eskolak antolatutako Xiberuaren aldeko Errekamari jaialdia txalotu nahi du: "Musika ederra eta euskal giro polita izan ziren bertan". Bide batez, tabernetan musika bera jartzea proposatzen du, herrian euskal giroa sor dadin.








# TAUPADA ANTZERIC
# 25 URTE, HAMAIKA

*"25 urte afitzerkiaren bihotzean" erakusketa egongo da ikusgai azaroaren 15etik abenduaren 2ra Kultur Etxean. Atzo goizeko kontua dirudien arren, 25 urte pasatu dira dagoeneko Taupada taldea sortu zenetik, eta erakusketa honetan bilduko dituzte etapa honetako elementu garrantzitsuenak. 25 urte plazarik-plaza jira eta bueltaka antzerkia euskaraz egiten. Edurne Lasa eta Joxe Mari Larrañaga dira hasierako talde hartatik gelditzen diren bi dinosaurioak. Denetarik egin dute 25 urte hauetan. Hamalau antzezlan egin, eta anIzerki teknika desberdinak landu dituzte. Gaurkoan gure artera ekarri ditugu, eta beraien ibilbideari buruzko hamaika oroitzapen kontatu dizkigute.*

Taupada antzerki taldea 1977ko udazkenean sortu zen. Euskara eta kultura bultzatzea zen taldearen helburu nagusia, eta argi zeukaten antzezlan guztiak euskaraz egingo zituztela: "Gure sorreran hartu genuen konpromisoa betetzen ari gara. 25 urte pasatu dira dagoeneko, eta oso pozik gaude lortu dugunarekin". Antzerkia eskolan ere irakasten dute. "Euskara bizi" programaren barruan emanaldi ugari egin dituzte eskoletan, eta haurrekin esperientzia polita izan dutela azaldu digute: "Haurrak gustura egoten dira, baina irakasleak antzerkirako daukan zaletasuna garrantzitsua da, guk erakutsitako teknikak praktikan jartzeko. Gaur egungo umeak telebista eta ordenagailuaren menpe bizi dira, baina antzeztea ere gustatzen zaie. Beti daude rol desberdinekin jolasten, eta antzerki jardunaldietan oso gustura egoten dira".

## HASIERAKO OROITZAPENAK

Lagun talde batek sortu zuen Taupada. Jende asko bildu zen hasieran, baina jendea gutxituz joan zen. Oroitzapen politak dituzte, baina hasiera ez zen erraza izan: "Denok ikasleak ginen, eta bakoitza punta baten bizi zen. Ikastolan elkartzen ginen asteburuetan". Amateur bezala, antzerki saioak kobratzen zituzten, baina aktoreek ez zeukaten soldatarik. Profesional mailara salto egin zutenean, lantaldeko partaideak dirua kobratzen hasi ziren. Gaur egun bi lagunek osatzen dute Taupada, baina emanaldietarako aktore profesionalak kontratatzen dituzte. "Printze Txikia" antzezlaneko lantaldea, Miren Larrea eta Aitor Ormaetxea aktore zornotzarrek, eta Joseba Anton teknikari elgoibartarrak osatzen dute.





## Antzezian guztietako zerbait aurkituko dugu erakusketan

Urteak ez dira alferrik pasatzen, eta Taupada taldeak asko eboluzionatu du. Antzerki teknika desberdinak landu eta asko ikasi dute: "Interpretazioa, konstrukzioa, maskarak, gorputz teknikak eta antzerkiak biltzen duen guztia landu dugu. Etengabeko formazioan aritu gara". Kale antzerkia ere egin dute, baina aretoetan antzeztea nahiago dutela aitortu digute. Txotxongiloekin ere egin dute lana. "Mari Sorgin" eta "Printze Txikia" panpinekin eginiko lanak dira: "Txotxongiloak ondo manipulatzea oso zaila da, aktore on bat egon behar da atzean, mugimendu guztiak ondo kontrolatzeko". Panpinari forma eta bizia ematea oso garrantzitsua da: "Txotxongiloaren izakera eta ezaugarri guztiak ondo zehaztu behar dira".

# TALDEA OROITZAPEN



## ANTZERKIA LEHEN ETA ORAIN

Antzerkiaren egorea asko aldatu da: "Duela 25 urte jendeak zailtasun handiagoa zeukan ikusentzunezko medioetan ateratzeko. Antzerkia gauza berezia zen, eta leku askotatik deitzen ziguten antzeztera joateko. Gaur egun, askoz zailagoa da. Antzerki talde asko daude, konpetentzia handia dago, eta produktu bat egin ostean, filtro ugari pasatu behar ditu saltzeko" .

Taupada taldekoek argi daukate antzerkia hobby bat dela beraientzat: "Antzerkitilc gaizki bizitzea posible da, baina ondo bizitzea oso zaila". Esan digutenez, oso diru gutxi gastatzen da antzerkian: "Aurrekontu bat egiten dugun bakoitzean, antolatzaileak regateatzen saiatzen dira. Beti esaten digute diru gutxiagorekin konpontzen saiatzeko". Antzerki munduko politika oso triste dagoela gaineratu dute: "Ez daukagu ziurtasunik. Produktu bat egin eta antzezteko zirkuito bat edukitzea oso zaila da. Lau talde mugitzen dira alde batetik bestera, eta beste lan mordoa ikusi gabe gelditzen dira".

## "Aurrera jarraitzeko ideia eta gogo handia daukagu"

Talde asko hasi eta berehala desagertzen dira, baina zailtasunak-zailtasun Taupadak 25 urte bete ditu. Dudarik gabe, benetako lanaren ondorioa izan da: "Benetan maite eta sentitzen dugu antzerkia. Lan handia egin dugu, ez gara aberastu, baina proiektu bat daukagunean aurrera agiten saiatzen gara". Ideia asko dituztela esan digute: "Musikak asko inspiratzen gaitu, baina edozein egoeratatik ateratzen ditugu ideiak. Baditugu ideia batzuk lantzeko, aurrera jarraitzeko gogoa ere bai, eta hori da garrantzitsuena". 25 urte bete dituzte, eta oraindik ez daukate teloia jaisteko asmorik. Zorionak!



**Pertsonaia kuttunena**

Printze Txikia eta Mari Sorgin. Batetik printzearen irudimena, gozotasuna, adiskidetasuna, bapatekotasuna eta bestetik, Mari Sorginen gaiztakeria eta maltzurkeria, bi alderdiak izugarri maite ditugu.

**Antzezlan gustukoena**

"Zaldi bat, bi kotxe eta hogeita hamar ile". Elementu gutxirekin gauza pila bat uztartu genituen: Burrakoa, maskarak, eskuko titereak... Aktore lan sakona egin genuen, zuzendari baten agindupean. Diego Murciano izan zen zuzendaria, eta asko ikasi genuen. Gogorra baina oso aberatsa izan zen.

**Antzezteko herri eta areto bat**

inor baztertu gabe, Nafarroako herri txikiak: Barañain, Zizur... Antolatzaileak, gurasoak eta umeak bat eginik, sekulako harrera beroa egiten ziguten beti. Beraientzat antzerkilariak etortzen ziren eguna berezia zen, eta izugarri eskertzen ziguten.

**Publikorik fidelena**

5-12 urte bitarteko haurrak dira fidelenak. Fantasia handia daukate, eta egiten dugun guztiarekin harrituta gelditzen dira. Gehien eskertzen dutenak dira, baina aspertu egin badira edo gustatu ez bazaie ere, egia esaten dute.

**Aktore baten ezaugarriak**

Obserbadorea, entzuten, begiratzen, ikusten dakiena, baina ez begiekin bakarrik, baita bihotzarekin ere. Sentimentuak transmititzen jakin, eta lotsa apur bat edukitzea ere, oso garrantzitsua da.

**Inoiz gertatu al zaizue gidoia ahaztu eta zuri gelditzea?**

Bai, baina baditugu aurrera ateratzeko errekurtsoak. Sekula ez gara ixilik gelditzen, beti esaten dugu zerbait, eta besteak berehala jarraitzen du gidoia. Elkar ezagutzea oso garrantzitsua da, momentu hauei aurre egiteko.

**Zer sentitzen da teloia altxatzean?**

Momentu txarrena teloia zabaltzeko zain gaudenean pasatzen dugu. Urduritasuna, pixagurea... denetarik izaten da, baina behin antzeztera ateratzen garenean lasaitu egiten gara.

**Eta jaistean?**

Dekorazio guztia jaso behar dugula! Ondo atera bada, errazago egiten dugu, baina gosea, nekea eta etxera iristeko gogoa izaten dugu.

# Antzerki ekoizpenak banan-banan



Haik, *Maik eta* Zeferina



*Behin bakazz...* jtz, *ju, ju...*



ntoduz?
*Eta etxekoak zer*

**Oihu gorrak (1978)**

Lehen antzezlana. Langile familia baten gazi-gezak agertu genituen; amets, itzal eta danbor hotsez inguratutako familia.

**Liliput (1980)**

B. Atxagak eskainitako edabe magikotik edan eta ilea ez ezik, Liliput antzerkiaren lurralde ñimiñoa ere etengabe hazten hasi zen gure baitan.

**Haik, Maik eta Zeferina (1982)**

Ziur-ziur ez bagaude ere, Liliputeko edabe magikoaren ondorioak pairatuz akaso, pailazo bihurtu ginen.

**Behin batean... ju, ju, ju... (1984)**

Akaron Zaldun Beltzak zorionaren kutxa lapurtu nahi izan zigun. Mendigorriko Txomintxok eta Abelardo Ramirezek kutxa berreskuratzeaz gain, Azpeitiko antzerki topaketetako lehen saria ekarri ziguten.

**Ponpa eta Mobis (1986)**

Hitz magiko potagikoak esan, makilatxoa astindu, eta "plop", Erdi Arotik magiaren mundura instant batean igaro ginen. Mobis mago ospetsuak usoak, kea, abanikoak, jendea, animalia liluragarriak eta Ponparen harridura nahastu zituen zirimolan.

**Eta etxekoak, zer moduz? (1988)**

Gustukoa izan genuen oso, komikietako laukiak osatzen dituzten lau marrak alde batera bota, orratz batez bertako hizkidun globoak zulatu, hitzak nahaspilatu eta edozein kaletako edozein paperezko etxetan geure burua aurkeztea.

**Terribilis Doktorea (1992)**

**Zaldi bat, bi kotxe eta hogeita hamar ile (1994)**

Hogeita hamar ile besterik ez zituen txapel-fabrika jabe baten istorioa eta historia kontatu genituen. Egin kontu! Biolina eta telefono hotsa, autotzarra eta zaldi moñoñoa, aktorea eta pertsonaia jarri genituen aurrez aurre. Endredu galanta!



*Zri bat, kot*
*logefra hamar* xe *era*

**Argitxo Iratxoa (1995)**

**Tandem Zirkus (1997)**

Tarrapatatapatapan! Tarrapatatapatapan! Zirkoaren danbor hotsaren zirrararen eraginpean, antzerkia kalera atera genuen. Tandem bizikleta batera igo eta ekilibrista izan ginen, arkakuso batzuen domadore izateko ere geureak eta bi ikusi genituen.



*Ponpa eta Mobis*

**Mari Sorgin (1998)**

Hali Mari fakirrak sugea sorgindu beharrean, Mari Sorgin ekarri zuen gure artera txotxongilo bihurtuta. "Mari Sorgin"-ek gizakiak ikaragarri onak edo benetan gaiztoak ziren garaietara eraman gintuen.

**Argitxoren abenturak (1999)**

**Printze Txikia (2000)**

Behinola Taupada gure taldearen ikur diren eguzkia eta ilargia ikusteko gogoa izan eta teleskopioak, prismak eta anitz esperimentu alde batera utzi ondoren, espaziora irtetea erabaki genuen. Basamortuak, aeroplanoak, jendilaje bitxia eta planeta sinestezinak ezagutu genituen.



*Printze 7.4-1X-ity*

**Zaunka egiten ez zekien zakurra (2002)**

Eskola antzerkia.

## Ikastolako haurrek Santa Zezilia eguna ospatuko dute azaroaren 22an



Urtero bezala, kalejira egingo dute Ikastolako haurrek Santa Zezilia eguna ospatzeko, Goizeko 8:30etan Foruen enparantzatik aterako dira. San Bartolome eta San Frantzisko kaleak zeharkatu ostean, Ikastolaraino iritsiko dira. Arratsaldean berriz, kontrako norabidean egingo dute kalejira. Ikastolatik aterako dira arratsaldeko 16:15etan, eta San Frantzisko eta Errosario kaleak pasatuz, Foruen Enparantzan emango diote amaiera.

## Gaztainerre eguna ospatu zuten Herri Eskolako haurrek

Joan zen astelehenean Gaztainerre eguna ospatu zuten Herri Eskolan. 250 haur inguru bildu ziren beheko patioan, eta sekulako jaigiroan pasatu zuten arratsaldea. Urtero bezala, egun honetarako espreski aurkitu eta zaindutako barraskilo lasterketarekin hasi zuten ospakizuna. Ondoren, musika eta dantza artean, gaztaina erre berriak banatu zituzten haur guztientzat.



## ESKOLA KIROLA

### AGENDA

**Azaroak 16, 4. Jardunaldia**

**FUTBOL 7, Mintxetan**

- **Benjaminak**

**10:00** Ikastola **D-** Pilar **C**
**10:30** Herri Eskola **A-** Pilar **A**
**11:00** Herri Eskola C- Ikastola B
11:30 Ikastola **E -** Pilar **D**
**12:00** Herri Eskola **B-** Mendaro **A**
**12:30** Ikastola **A-** Ikastola C

**ESKUBALOIA, ikastolan**

- **Alebin mutilak**

**9:00** Herri Eskola **A-** Ikastola **B**
**11:15** Ikastola **A-** Herri Eskola **B**
**12:00** Mendaro **B-** Pilar **A**
**12:45** Pilar **B-** Ikastola C

- **Alebin neskak**

**9:45** Herri Eskola - Pilar **A**
**10:30** Ikastola **A-** Ikastola **B**
Pilar **B** (Atsedena)

**SASKIBALOIA, ikastolan**

- **Infantil mutilak**

**11:15** Ikastola A - Insti **A**
**12:00** Ikastola **B-** Pilar A
Insti **B** (Atsedena)

- **Infantil neskak**

**9:45** Ikastola **A-** Insti **A**
**10:30** Ikastola **B-** Pilar **A**
Pilar **B** (Atsedena)

**E goiharren EUSKARAREN TRANSMISIOA eta EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA suspertzeko**

**TEKNIKARIA BEHAR DA**

ESKATZEN DA:
Euskara maila ona
Harremanetarako dohaina
. Antolakuntzarako eta gestiorako gaitasuna

BALORATUKO DA:
. Esperientzia sektorean edo euskalgintzan
Curriculuma
Elgoibartarra izatea

ESKAINTZEN DA:
Urtebeterako lan kontratua, **berritzeko aukerarekin.**

Curriculumak jasotzeko azken eguna: azaroak 22
ELGOIBARKO IZARRA, Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR
Informazio gehiago: 943 74 **16 26 (Imanol)**

Proiektuaren eragileak:
- ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea eta Elgoibarko UDALA
- AEK euskaltegia eta Udal Euskaltegia

Babeslea:
- Elgoibarko Udala (Euskara Batzordea)



**karkano**
San Frantzisko, 14 — Tel, 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18 Tel. 943 74 08 49

2002-XI- 15

# Deba ibaia Gipuzkoako kutsatuena da Foru Aldundiaren arabera

## Neurketak egiteko Foru Aldundiak sare bat dauka eta Deba ibaiko datuak Altzolan biltzen dituzte

Gipuzkoako Foru Aldundiak 'nformazio hidrologikoa aditzera emanez Gipuzkoako ibaiei buruzko txostena kaleratu du. Txosten honen arabera Elgoibartik pasatzen den Deba ibaia da lurraldeko kutsatuena.

Neurketak egiteko Foru Aldundiak sare bat dauka eta hauetako puntu bakoitzean ur emaria neurtu eta kontrolatzeaz gain, uraren kalitatea neurtzeko parametroak hartzen dira. Deba ibaiko datuak biltzeko aforalekua Altzolan dago eta 1995etik egiten dira neurketak. Aforalekua triangelu itxurako egitura bat da. Ura bertatik etengabe pasatzen da eta sentsore batzuen bidez neurtzen dute uraren kalitatea.

Kontrol estazioek hamar minuturo ematen dute uraren kalitatearen berri: tenperatura, oxigeno disolbatua, ugertasuna... Honetaz gain, azterketa fisiko eta kimikoak egin ahal izateko muestrak jasotzeko sarea dago. Puntu horietan udaberrian eta agorraldian muestrak hartzen dira komunitate biologikoak aztertzeko. Honela, adierazle biologikoen bidez, hau da, zein animalia dauden eta zein ez ikusiz, uraren kalitatea neurtzen da. Metodo honekin kutsatzaileen eragina neurtzen da. Arrantza elektrikoaren bidez muestrak hartuz ere ibaiko faunari buruzko azterketa egiten da. Informazio horrek puntu bakoitzeko uraren kalitatea zehazteko ez ezik, saneamendua eta depuradoren eraginkortasuna egiaztatzeko ere balio du.

2001eko datuen arabera, Deba ibaiko kutsadura jaitsi egin da, batez ere Eskoriatza-Aretxabaleta zatian. Baina oraindik herrialdeko ibairik kutsatuena denez, egoera ez da batere ona.



*Kontrol estazioek hamar minuturo ematen dute uraren kalitatearen berri.*

# Arriskutsuak izan daitezkeen animalien jabeek Udalaren lizentzia eduki beharko dute

## Jabeek hiru hilabete izango dituzte lizentzia eskuratzeko

Legearen arabera arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izateko lizentzia eskuratu beharko da udaletxean. Horretarako jabeek hainbat baldintza beteko dituzte: Adin nagusia izatea, aurrez delituengatik kondenatua ez izatea, arau-hauste larriak edo oso larriak egin gabe izatea, gaitasun fisiko eta psikologikoak edukitzea eta segurua ordaintzea.

Jabeek 3 hilabete izango dituzte lizentzia eskuratzeko eta ondoren, arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan eman behar dute izena. Orain arte ezer larririk gertatu ez bada ere, badaezpada identifikatzea da Udalaren asmoa.

Bereziki txakurren kasua azpimarratu dute. Hauek bi metrotik beherako uhala eta muturreko egokia erabiliko dituzte. Gainera arriskutsuak izan daitezkeen txakurren zerrenda kaleratu dute, hauen jabeek izena eman dezaten: Pit Bull Terrier, Staffordshire Bull Terrier, American Staffordshire Terrier, Rottweiler, Dogo Argentino, Fila Brasileiro, Tosa Inu, Akita Inu.

Hauetaz gain, izaera erasokorra duten txakurrek edo inoiz erasoren bat egin dutenek lizentzia beharko dute. Lizentzia udaletxean bertan eskuratu ahal izango da.



*Izaera erasokorra duten txakurrek edo noizbait erasoren bat egin dutenek lizentzia beharko dute.*



## Jose Ulaziak 100 urte bete ditu

100 urte bete berri ditu Jose Ulaziak. Mendaron jaio eta urte askoan Elgoibarren bizi ostean, Durangon du bizilekua orain dela 45 urte bertara joan zenetik. Berrehungarren urtebetetzean Bizkaiko Foru Aldundiko, Durangoko Udaleko eta EAJ-PNVko ordezkariek omenaldia egin zioten. Gurpildun aulkian dagoen arren osasunez ongi dagoela diote ingurukoek. Errosarioa errezatzea, bertsoak entzutea eta pelota partiduak ikustea du gustuko. Zorionak bada, Elgoibartik ere Jose Ulaziari.

## 113goibartar asko inguratu zen Magosto jaira

Galiza Etxeak 25. urteurreneko ekitaldiak hasi zituen joan den larunbatean, hilaren 9an, Magosto jaiarekin. Berez nekazal giroko ohitura diren gaztainak eta ardoa kalera ekarri zituzten Galiziarrek eta bide batez Galiziako kulturak Euskal Herrikoarekin bat egin zuen. Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, jende ugari bildu zen egunean zehar Galiziako produktuak dastatzera eta erostera. Galiza Etxeko antolatzaileek herritarren partehartzea eskertu nahi dute.



## Babes ofizialeko 100 etxe eraikiko ditu Udalak Ubitarte inguruan

Udalak Ubitarte-burun eta Ubitarte-gainen babes ofizialeko etxebizitzak egiteko asmoa du. Horretarako arau subsidiarioen aldaketa proposatu zuen plenoan. 100 etxe babes ofizialekoak izango dira eta beste horrenbeste libreak. Lurrak trenbidearen alde banatan daude, Institutuaren eta Santa Ana kaleko errotondaren artean. Plenoan arauak aldatzea eta proiektua onartzea erabaki bazuten ere, Batasuna alderdia aurka azaldu zen. Beraien esanetan, "Etxeak eraiki aurretik ikerketa bat egin beharko litzateke herritarrek etxebizitzetan zein behar dituzten eta zenbat etxebizitza huts dauden jakiteko. Gainera, beste alternatiba bat etxebizitza sozialak egitea litzateke. Bestalde, gune horretan etxeak eraikitzeak aparkalekuen arazoa areagotuko duela gaineratu zuten".

## Batasunako zinegotziek 2003ko zergei ezezkoa eman diete

Batasuna alderdiak 2003ko0 udal ordenantzei ezezkoa eman zien azken plenoan. Ezezkoa ematearen arrazoiak azalduz prentsaurrekoa egin zuten asteartean Batasunako zinegotziek. Aurreko urteetako aurrekontuetan ongasun sailean partida berezia bideratu zen ordenantzen gaian herritarren parte hartzea bultzatzeko, baina gero ez da erabili Batasunakoen esanetan. Hori ikusita, zinegotziek proposamen bat aurkeztu zuten hainbat ekintza planteatuz: Herritarrek zergak ordaindu arren ez dakite horien zergatia, beraz, informazio orria buzoneatu behar litzateke. Herriaren egoera sozioekonomikoa egitea ere beharrezkoa da, horretarako sindikatuekin eta zerbitzu arloko elkarteekin bilduz. Alderdi politikoen arteko eztabaidaren ondoren, ordenantzak plenoan onartu eta erabakien berri eman beharko litzaieke sindikatu eta zerbitzuetako erakundeei. Azkenik, informazioa berriz herritarrei helarazi.

Gainontzeko alderdiek ez zuten proposamen hau onartu eta horregatik agertu dira Batasunakoak aurtengo ordenantzen aurka.



*Batasunako zinegotziak Kimetz elkartean emandako prentsaurrekoaren ondoren.*

### DEBA IBAIA GIPUZKOAKO KUTSATUENA DA FORU ALDUNDIAREN AZTERKETAREN ARABERA

# BA AL DUZU DEBA IBAIA INOIZ GARBI IKUSTEKO ESPERANTZARIK



## BEGOÑA TXURRUKA

**56 urte, etxekoandrea**

Bai. Gainera, Mendaroko urak hona bonbeatzen ditxuenian dana garbitxuko da eta arrainak ikusiko ditxugula esaten dabe. Ni ibaixan bainautakua naiz.

## MARIOLA PEÑAFIEL

**27 urte, zaintzailea**

Gustatuko litzaidake, baina ez dakit lortuko den. Amak sarritan esan dit beraiek Ermua eta Eibar artean bainatzen zirela. Nik ez bada, ea nire umeek ikusten duten.





## MARIA JESUS ARCE

**43 urte, etxekoandrea**

Esperantza ez da inoiz galtzen, baina... Gainera depuradora hemen eraikitzearekin ez nago ados, usain txarra edukiko baitugu herrian. Beste nonbaiten egin behar lukete.

## LUIS BLANCO

**68 urte, jubilatua**

Bada ordua garbitu dezaten. Baina ez zikintzetik hasi beharko ginateke. Erreka aldeko etxeetatik oraindik jende askok botatzen du zakarra ibaira ontzietara bota beharrean.





## JUAN JIMENEZ

**48 urte, langabetua**

Denborarekin beharbada garbituko da, baina ez dut uste. Depuradorek zerbait egin dezakete, baina lantegiek kutsatzeari uztea litzateke irtenbide onena.

## JULIAN GONZALEZ

**41 urte, udaletxeko langilea**

Polita izango litzateke, baina inguru honetan industria asko dago eta oso zaila da. Epe laburrera behintzat, ez dut uste ibaia garbi ezagutuko dugunik.





***ESKERTZA***

*2002ko azaroaren 9an, 74 urte zituela hil zen*

***JOSEFINA ARRIOLA OSTOLAZAren***

*sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,*

*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# BERO

## EHIGARRI BEREZIA



EMILE ALAIN FILOSOFO FRANTZIARRAK ZERA ZIOEN: MODU BAKARRA DAGO HOTZA ONGI JASATEKO: HOTZ EGOTEAZ ALAITUTA". BAINA GUTXI DIRA NEGU BELTZEKO HOTZAK ALAITZEN DITUENAK. GEHIENOK NAHIAGO IZATEN DUGU KANPOAN ELURRA, EURIA EDO HAIZE HOTZA ARI DUENEAN ETXEAN EPELETAN EGOTEA. ETXEA BEROTZEKO HAINBAT MODU DAGO, ETA BAITA BEROA MANTENTZEKO ERE. GEHIGARRI HONETAN HORREN BERRI EMANGO DIZUEGU. EGURALDI HOTZAK HASI DIRENEAN BEROKUNTZARI BURUZ HITZ EGITEA DA GURE ASMOA.

10DOSO LEIHOAV

Zwee ketothika elii4b4ito tasa

ARCO EUROPA
GOLD STAR
AWARD
KALITATEA

PVCa
ALUMINIO TERMIKOA
POLIURETANOA
ALUMINIOA - EGURRA



Sigmako industrialdea, Xixilion, 2- 2. pabiloia 3 zenbakia
• Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12

# BEROAK ETXETIK ALDE EGIN EZ DEZAN

Kanpoan hotza dagoenean alferrik da etxe barrua berotzea, baldin eta tenperatura bero mantentzeko sistemarik ez badugu. Horretarako leihoetako kristal bikoitzak, burlete edo antzekoak... erabili ohi dira. Sabai, horma edo zoruetan isolamendu egokia eduki ezean ere, nekez lortuko dugu tenperatura atsegina.



o Bero ihesak ebitatu: Ate eta leihoetan kristal bikoitza eta burleteak jarri. Isolamendu termikoarekin asko aurreztu daiteke berokuntzan. PVC materialezko perfilak dituzten leihoetatik edo kristal dobledunetatik beroaren galera txikiagoa da. PVC-z egindako leiho eta ateek, ez dute apenas mantenurik behar. Izotzari, euriari, elurrari eta hezetasunari aurre egiteko material egokia da.

o Etxeko berokuntza sistema kolektiboa bada, bero handiegia sentituz gero berogailuaren giltza itxi behar da, ez leihoak ireki.

o 10 minutu nahikoa dira gela bat aireztatzeko, hortik aurrera beroa galdu eta etxea hozten da. Beraz, ez eduki leihoak behar baino denbora luzeagoan irekita.

• Leihoetako kristalek hotza hormek beste blokeatzen ez dutenez, aulkiak eta sofak leihoetatik aldendu behar dira. Etxea epel egon arren hotza senti dezakezu.

EMEI CALINTEG CONFORT
HORMAN BEROGAILUAK
PANELEN BIDEZKO BEROGAILUAK
BEROTZEN DUTEN MARGOLANAK
Jausoro plaza, 6 - Tel./Faxa: 943 74 00 50 • ELGOIBAR



JAVI ITURGINTZA BEROGAILUAK
Iturria tantaka duzula...
☎ 659 77 29 32
Erretxindi z/g



Iturgintza
GAS ETA BEROGAILU INSTALAKUNTZAK
Olaso Poligonoa, 18 - 68 pabiloia. Te1:943 74 28 80

ZALDUA
Iturgintza
GAS ETA BEROGAILU INSTALAKUNTZAK
Urasandi, 26 · Tel: 943 74 05 30

# BEROKUNTZA SISTEMA, ZEIN OTE DA ONENA?

***Norberaren beharretara egokitutako rriak, gastatu nahi dugun diru kopurua eta berokuntza sistema aukeratzea ez da lan klima hartu behar dira kontuan. Merka-erraza. Horretarako, etxearen ezauga- tuan sistema aukera zabala dago.***

**O Gas naturala:** Egun gehien erabiltzen den erregaia, garbia eta eraginkorra. instalazioaren kostua berehala amortizatzen da, aurrezteko aukera ematen baitu, beroa etxeko geletan erraz erregulatuz. instalakuntza eginda, erabiltzailea ez da erregaia gordetzeaz arduratu behar.

• **Ikatza eta egurra:** Erregai tradizionalak. Erregulatzeko zailak. Gainera nahiko arriskutsuak dira kontrol zehatzik ez dagoelako. Gordetzeko leku asko eskatzen dute eta egunero hondakinak garbitu behar dira. Egurraren prezioa aldakorra da eta ikatzarena garestia.

* **Gasoleo C:** Etxe unifamiliarretarako eta gasa sartuta ez dagoen herrietarako egokia izan arren, litro asko pilatu behar dira urtean, sarritan depositoa betetzen ez ibiltzeko. Depositoa etxetik aldenduta, garajean, patioan... egotea komeni da, usainarengatik batez ere.





**Propano gasa:** Gas naturala besteko fidagarritasuna badu ere, botiletan etxean gorde behar da. Merkea eta egokia gas naturala kanalizatzear dauden herrietarako, kaldera bera erabil daitekeelako.

**0 Elektrizitatea:** Lehen garestitzat hartu arren, orain gaueko tarifari eta beroa pilatzen duten sistemei esker errentagarria da. Gainera, garbia eta segurua.

*Zuzena:* Sortu eta zabaldu une berean egiten da. Lur eta sabaiko radiazioa, konbektoreak, panel radianteak, eguzki plakak, olio radiadoreak...

*Pilaketa bidezkoak:* Denbora tarte batean beroa sortu eta pilatzen da, ondoren zabaltzeko. Gaueko tarifa aprobetxatzeko egokiak dira. Arazo bakarra instalazioaren prezio garestia da.

*Mistoa:* Aurreko biak elkartzetik dator. Berogailuaren kontsumoaren %40-80 gauez egiten da.




, SORALL12.,
AROZTEGIA




"Rotura"dun aluminioa
PERFILTHERMIK modeloko poliuretanoa
HERMET-1 0 PVCa
Bainuko manparak
Ateak

Olasope, 66. ELGOIBAR
Tel/Faxa: 943 74 21 03

Santa Ana, 8 Tel: 943 74 36 34 ELGOIBAR
Goiko Kale, 16 Tel: 943 81 02 74 AZPEITIA

# ETXEAN BERO-BERO, KONTUAN HARTU GERO

Hala izan ohi da bai. Etxean goxo eta bero gaudenean ez gara ohartzen berotasunak berez duen kostuaz. Etxe bateko energia kontsumo osoaren %64 eragiten dute berogailuek eta faktura iristearekin batera izaten dira kontuak. Berokuntzan aurrezteko badira jarraitu beharreko hainbat pauso:



Berogailuaren termostatoa 20 gradutan mantendu, etxe baterako tenperatura egokia da. Energia gehiago gastatuko dugu, gradu bakoitzeko %6 eta 8 bitartean.

Etxetik alde egin behar izanez gero, eta tartea ordubetetik beherakoa bada termostatoa 15 gradura jaistea komeni da. Egun osorako edo gehiagotarako joanez gero, berriz, deskonektatzea da hobea.

Berogailuaren funtzionamendu programa etxebizitzaren okubazioaren eta erabiltzaileen nahiaren arabera aukeratzeko termostato programagarriak erabili.

Gutxiago erabiltzen diren geletan jaitsi tenperatura.

Urtero berokuntza sistemaren errebisioa eta garbiketa egin behar da eraginkorragoa eta seguruagoa izan dadin.

Radiadoreek ahalik eta etekinik handiena eman dezaten ez da komeni estaltzea.

tlfisfpu j1
JATETXEA
EGUNERO ZABALIK
Ez dugu ixten
LAN EGUNETAN AFARIAK ENKARGUZ
JAI EGUNETAN ETA ASTEBURUETAN
MEN U BEREZIAK edariak kanpo
12 euro
Astero bat eta ezberdina!!!!
Basarte Auzoa, 4 (Mintxeta inguruan)
Tel./faxa: 943 74 34 26



Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

# informazioa

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 15 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 16 | Yudego | Ibañez |
| 17 | Ibañez | Ibañez |
| 18 | Bidasolo | Bidasolo |
| 19 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 20 | Fernandez | Fernandez |
| 21 | Yudego | Yudego |
| 22 | Zabaleta | Zabaleta |

**FARMAZIAK**

**ESCALA,** Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ,**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA,** Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
*eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**
17 igandea **Ibarrenea**

## Eusko Tren

DONOSTIA-BILBO
Egunero
Donostia ~ 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

BELBO-DONOSTIA
Egunero
Bilbo 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
* jaiegunctan 8.00ctan hasiko dira

## Eusko 1L f OBUS

MENDARO-ELGOIBAR
Eguncro
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

**LARUNBAT GAUA**

PESItAITTOBITSAK

EIBAR-ONDARROA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eihar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00.55 | 02.55 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

ONDARROA-EIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 0545 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eihar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

*Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. TeL 902 101 210.*

## INTERESEKO TELEFONO AK

**OSASUNA**

Anbulatorioa ................. 943 03 26 10
Planning-a ................. 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak ................. 943 74 03 85
D YA (anbulantzia) ................. 943 46 46 22
Gurutze Gorria ................. 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea ................. 943 03 28 00
Odol Emaileak ................. 943 74 39 36

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak ................. 902 54 32 10
PESA (Eibar) ................. 902 10 12 10
Taxi geltokia ................. 943 74 08 98

**UDALA**

Euskara Zerbitzua ................. 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua ................. 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua ................. 943 74 21 58
Gazte Informazio Gunea ................. 943 74 14 61
Mendaroko Udala ................. 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua ................. 943 74 10 08
Udaletxea ................. 943 74 10 50
Udaltzaingoa ................. 943 74 13 94

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra ................. 943 74 16 26
Kiroldegia ................. 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa ................. 943 74 30 88
Liburutegia ................. 943 74 35 25
Musika Eskola ................. 943 74 **21** 45
Mintxeta ................. 943 74 43 15
Parrokia ................. 943 74 08 42
Postetxea ................. 943 74 15 47
Gaztetxea ................. 943 74 35 72

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola ................. 943 74 21 41
HHI (EPA) ................. 943 74 08 80
Herri Eskola ................. 943 74 08 79
I M H ................. 943 74 41 32
Institutua
Arreiturre ................. 943 74 80 19
Ezenarro (Meka) ................. 943 74 80 19
Ikastola ................. 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea ................. 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN ................. 943 74 41 12
El Diario Vasco ................. 943 74 40 73
El Correo Español ................. 943 74 10 82
Zazpiki irratia ................. 943 74 34 74
Egunkaria ................. 943 30 02 22
Gara ................. 943 31 69 99

54E9114
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 1r 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



2002-XI- 1 5

*Depuradora egiteko lanak hasi dituztela esan genizuen joan den astean. Aste honetan jakin dugu Deba ibaia dela Gipuzkoako ibairik kutsatuena. Garai batean, ordea, ez zen horrela, ezta gutxiagorik ere. Ibaiko urak garbi iristen ziren Elgoibarrera eta umeak bertan bainatzen ziren inongo arriskurik gabe, kutsadurari zegokionez ez behintzat. Migel Angel Mujika zen ume horietako bat, gaur egun 55 urte ditu eta gogoratzen ditu Deba ibaian bainatzen zireneko garai haiek.*



MIGEL ANGEL MUJIKA

# "Deba ibaixan ikasi naban igerixon "

• **Nola gogoratzen dituzu Deba ibaian bainatzen zineteneko garai haiek?** Oin baino presa gehixao zauan eta paraje gehixaotan ur geldixak zaozen eta bainua hartzeko aukeria ematen zaben tarte edo zuluak geratzen zian 8 eta 12 urte artian behin baino gehixaotan bainau nintzan.

• **Non bainatzen zineten?** Gehixenetan Goiko-Errotan bainatzen ginan, baina gu baino nausixauak han bazeuden ez ziguten lagatzen. Goiko-Errotan arbola bat zauan eta zuzen urten biharrian okertuta zauanez, tranpolin funtziva itxen zaban guretzat, Handik salto itxen genduan. Batzutan piska bat goratxuao juten ginan, Andikao aldera. Ez dakit nik han harri gorririk zauan edo ez, baina guk "Roca roja" deitzen ginon. Madala, San Pedro eta Artetxe ingurukuak Morterika aldian bainatzen ziala entzuten zan, baina ni ez nintzan sekula jun.

■ **Edozein bainatzen al zen?** Gehixenetan etxian ez zaben jakiten bainua hartzera juten ginanik. Baina garai haretan Plaza Txikixan futbolian, edo pelotan ez bagabizen, erreka inguruan ibiltzen ginan jolasian. Kainaberiakin edo eskuz arrantzan ibiltzen zianak ere bazian. Askotan erreka baztarrera arrimau eta bateron batek bultza in eta jausitxa uretan amaitzen genduan. Neskak ibiltzen zianik ez dakat goguan, baleike beste parajeren baten ibiltzia, baina garai haretan neska eta mutil banatuta ibiltzen ginan beti, eta bainurako ere hola izango zala pentsatzen dot.

• **Deba ibaian ikasi al zenuten igeri egiten?** Bai, ikasi-edo. Ez genduan oin ikasten daben moduan ikasten. Txakurren moduan igarixan eitxen moldatzen ginan.

• **Arriskurik ba al zegoen?** Sustoren bat edo beste egongo zan, baina arrisku handirik ez. Bildurragatxik edo igarixan ez zakixalako ibaixan aldamenian egon eta beste batek bultza inda askotan amaitzen genduan uretan, batzutan baitxa erropiakin ere.

• **Orduan arrainak ere izango ziren ibaian. Arrantza egiten al zuen jendeak?** Errekia garbixaua zauan, noizian behin hondakin organikuak errekan ikusten zian arren. Ohitxura haundixa zauan arrantzarako, batzuk kainaberia hartu eta barbuak, amorrainak angilak... arrantzatzen zitxuen.

• **Orain, ibaia zikin ikusten da askotan. Horrek zer pentsatua ematen al dizu?** Errekia kontaminatzen hasi zanian neri penarik haundixena arrainak hilda tripaz gora ikustiak eman zian. Hori bi edo hiru aldiz gertatu zan. Gainera, guk bizimodu asko itxen genduan erreka baztarrian eta ibaixa hola ikustiak penia ematen dau. Lehen errekara pelotaren bat jausten bazan, bateron bat juten zan txalupa batekin bila, eta oin holakorik ez da ikusten.

■ **Ibaia inoiz garbi ikusiko dugun esperantzatik ba al duzu?** Nik neuk bai. Gipuzkoan ibaiak garbitzen hasi zianian 2005erako Deba ibaia garbixa egongo zala esaten zaben. Nik garbixa ikusiko dogula pentsatzen dot, baina zein tamainara arte ez dakit. Nahiz eta depuradora eta kolektorea jarri, gaur egun oindiok jende askok zaborra errekara botatzen dau.

• **Hori ez gertatzeko zer egin beharko genuke?** Nik uste dot danok kontzientziau in bihar gerala, etxetik gertu dakagulako zakarrak botatzeko lekua. Danon onerako izango da, gainera.

# Liburu berria kaleratu du Gotzon Garatek

## Zakurrekiko maitasuna azaltzeko idatzi du "Zakurra, zeure laguna"

Gotzon Garate idazlearen azken lanak "Zakurra, zeure laguna" izenburua dauka eta Elkar argitaletxeak argitaratu du. Bere aitaren animalia zaletasuna zela eta, zakurrekin bizi izan da haurtzarotik idazle elgoibartarra eta harreman horren emaitza da liburua. Bertan, era askotako berri eta pasadizoak bildu ditu. Zakurren ezaugarri orokorrak, haien ohiturak, heziketarako aholkuak eta beste hainbat jakingarri ematen ditu egileak, batetik, eta egiazko gertaera ugari kontatu, bestetik, hainbat gairen inguruan: zakurrak gizakion laguntzaile eta salbatzaile izan diren kasuak, zakurren borrokak eta arriskuak, beste animalia batzuekin izaten dituzten gorabeherak, etab. luze bat. Euskal Herriko baserrietara egin zituen bisitaldietan jabetu zen Garate zakurren leialtasunaz,




zintzotasunaz eta adiskidetasunaz eta zakurrei buruzko liburua egitea bururatu zitzaion. Zakurrenganako maitasunaz eta haien ohoretan idatzi du Deustuko Unibertsitatean irakasle den Garatek.

# IDaki Perez Armendia idazle elgoibartarrak "Jose Maria Pereda Nazioarteko Literatur Saria" irabazi du



*"Playtex" liburuari esker 15.000 euro irabazi ditu Perez Armendiak.*

Iñalci Perez Armendia elgoibartarrak Jos Maria Pereda idazle kantabriarraren omenez antolatzen den Literatur Saria irabazi du "Playtex" izeneko eleberriari esker. Nobelako protagonistaren izena da Playtex, bizkartzain kubatar harroputz bat, alegia. Almudena Grandes ("Las edades de Lulu", "Malena no es un nombre de tango") idazle ezaguna izan da epaimahaiaren bozeramailea. Berak azaldu zuenez, epaimahaiak adostasun osoz erabaki zuen saria Iñakiri ematea. " Testuak daukan hizkuntza aberastasuna txundigarria da eta erabili dituen esamolde bereziei erreparatuz gero kubatar batek idatzia izan dela dirudi". Honez gain eleberriaren irakurt erraztasuna goraipatu zuen Grandesek eta idazle guztiek bilatzen dutena lortzen duela liburuak azpimarratu zuen, Playtex moduko pertsonaia ahaztezin bat sortzea, alegia.

Iñaki Perez Armendiak 48 urte ditu eta zientzia irakaslea da Eibarko Armeria Eskolan. Sari honi esker 15.000 euro poltsikoratuko ditu eta Pretextos argitaletxeak kaleratuko du liburua.

# Uxue Alberdik Soraluzeko III. Bertso Paper Lehiaketa irabazi du

Uxue Alberdik Soraluzeko HI. Bertso Paper Lehiaketa irabazi du helduen mailan. Emagaldu baten bizitza kontatzen duten "Mila maitaledun bakardadetik" bertso sortak eman zion saria Uxueri. Txapela eta 180 euro eskuratu ditu, baina ez da idazteko abileziari esker sariren bat irabazi duen lehen aldia izan. Elgoibarko Etxegiña Bertso Paper Lehiaketa eta Mendaro eta Azkoitiko literatur sariak ere irabazi ditu. Soraluzeko Euskararen Aholku Batzordeak antolatutako V. Bertso Afarian egin zen sari banaketa. Bertan, Unai Iturriaga eta Igor Elorza aritu ziren bertsotan eta Uxuek ere saritutako bi bertso kantatzeko aukera izan zuen.

# Eduardo Arrillagaren argazki erakusteta Bartzelonan

Eduardo Arrillaga argazkilari elgoibartarra "Veterinarios Sin Fronteras" Gobernuz Kanpoko Erakundearentzat lanean aritu da azken 12 urteotan. Urte hauetan guztietan hainbat argazki atera ditu Guatemala, Bolivia, Haiti eta Errepublika Dominikarrean. Argazkirik esanguratsuenak aukeratu ostean, "Veterinarios Sin Fronteras" erakundeak argazki erakusketa antolatu du Bartzelonan, E1 Triangle erakusketa aretoan, hain zuzen ere. Azaroaren lean inauguratu zen erakusketa, baina Bartzelonaraino gerturatu ezin duzuenok ere izan dezakezue argazkiok ikusteko aukerarik, liburu batean bildu eta argitaratzeko asmoa baitu argazkilari elgoibartarrak.

# 47 elgoibartarrek amaitu zuten Behobia-Donostia lasterketa

## Oscar Malvarrek 22. postuan amaitu zuen 1 :06:41 denborarekin

### 1-capena

| Abizenak, Izena | Postua | Denbora |
|---|---|---|
| Malvar Cid, Oscar | 22 | 1:06:41 |
| Gomez Ferro, Jorge | 169 | 1:14:00 |
| Arrieta Vallejo, Asier | 215 | 1:15:07 |
| Bergaretxe Olabide, Xabier | 296 | 1:16:42 |
| Konde Zubiaurre, Iñaki | 419 | 1:18:28 |
| Azpeleta Iturricastillo, Tomas | 546 | 1:20:07 |
| Orbea Ostolaza, Asier | 871 | 1:22:55 |
| Garrido Diez, Hector | 1131 | 1:24:50 |
| Fernandez de Lama, Javier | 1472 | 1:27:01 |
| Aranzabal Gomez, Rikardo | 1533 | 1:27:24 |
| Ansola Aizpitarte, Iñigo | 1712 | 1:28:15 |
| Ramirez Gurria, Dioni | 1835 | 1:28:47 |
| Fernandez Carballo, J. M. | 2109 | 1:29:45 |
| Dominguez Lopez, Martin | 2299 | 1:30:33 |
| Perez Alvarez, Ignacio | 2791 | 1:32:50 |
| Etxaniz Zialtzeta, I ñigo | 2915 | 1:33:25 |
| izagirre Izagirre, Jose Ignacio | 2980 | 1:33:40 |
| Arosa Ansola, Luis Fernando | 3028 | 1:33:52 |
| Altzerreka Etxeberria, Roberto | 3436 | 1:35:22 |
| Agirretxe San Sebastian, Jesus | 3810 | 1:36:50 |
| Aguirrebeña Lizundia, Ernesto | 3885 | 1:37:07 |
| Bautista Dominguez, Fernando | 3928 | 1:37:17 |
| Alberdi Gorostiaga, Andres | 4211 | 1:38:20 |
| Castro Mosquera, Emilio | 4243 | 1:38:28 |
| Gil Esparza, Xabier | 4293 | 1:38:39 |
| Alkorta, Urtzi | 4300 | 1:38:39 |
| Villanueva Altuna, lbon | 4362 | 1:38:53 |
| Uribe Odria, Eduardo | 4508 | 1:39:25 |
| Hernandez Diego, Abel | 4714 | 1:40:14 |
| David Casados, Pilar | 5407 | 1:42:52 |
| Ayesta Arruza, Carlos | 5659 | 1:43:53 |
| Galarraga Aranguren, Jon | 5701 | 1:44:03 |
| Uriarte Ezenarro, Borja | 5700 | 1:44:03 |
| Gurrutxaga Perez, Andoni | 5897 | 1:44:51 |
| Gurrutxaga San Martin, J. J. | 5968 | 1:45:11 |
| Makazaga Bengoetxea, Asier | 5971 | 1:45:11 |
| Etxaniz, Imanol | 7112 | 1:50:15 |
| Arriola Nicolas, lgor | 7187 | 1:50:38 |
| Lama Lopez, Pilar | 7540 | 1:52:14 |
| Frias Chaves, Francisco | 7601 | 1:52:37 |
| Arrillaga lbarlucea, Manu | 7696 | 1:53:06 |
| Estibaritz Astarloa, Izaskun | 8385 | 1:57:16 |
| Estibaritz Astarloa, M. Jose | 8386 | 1:57:17 |
| Korta Juaristi, Edurne | 8719 | 1:59:33 |
| Korta Juaristi, Itziar | 8720 | 1:59:33 |
| Arozena Exposito, Dorleta | 9386 | 2:07:35 |
| Arakistain Iriondo, Amagoia | 9388 | 2:07:36 |
| MENDARO | | |
| Mayora Elizondo, Iker | 110 | 1:12:07 |
| Gil Onaindia, Iñaki | 768 | 1:21:59 |
| Perez Campos, Victor Manuel | 805 | 1:22:17 |
| Zabala Zabaleta, Gorka | 1568 | 1:27:33 |
| Rey Amrillaga, lgor | 4370 | 1:38:55 |
| Berasaluze Iriondo, Agustin | 8282 | 1:56:40 |




*Goian autobusean joandako elgoibartarrek Behobian ateratako argazkia. Behekoan lasterketako une batzuk.*

Ediziorik arrakastatsuenetarikoa bizi izan zuen Behobia-Donostia lasterketa herrikoiak pasa den azaroaren 10ean. Guztira 10.800 korrikalarik eman zuten izena eta 10.158 atletek amaitu zuten 20 kilometroko lasterketa famatua. Urtero legez, elgoibartar mordoa animatu zen parte hartzera eta 47 herritarrek lortu zuten proba amaitzea. Iaz 44 izan ziren eta duela hiru urte, berriz, 75, elgoibartar. Oscar Malvar gaztea izan zen helmuga zapaldu zuen lehen elgoibartarra eta marka aparta lortuz gainera. Sailkapen nagusiko 22. postuan amaitu zuen 1:06:41 denborarekin. Iaz egin zuen denbora 28 segundutan hobetzea lortu zuen eta lehen gipuzkoarrari ematen zaion Diego Garcia saria irabaztetik 56 segundura geratu zen. Asier Urdanpilleta ariorgarra izan zen lehen gipuzkoarra 1:05:45 denborarekin. Lehen emakume elgoibartarra Pilar David Casados izan zen 1:42:52 denborarekin. Ezkerreko taulan C.D. Fortuna Elkarteak emandako elgoibartarren eta mendarotarren behin behineko denborak eta postuak ikus ditzakezue.



2002-XI- 15

# Bihar, hilak 16, jokatuko da IX. Karakateko Igoera

## Goizeko 10:00etan aterako dira parte hartzaileak Plaza Handitik



Urgazi Triatloi taldeak eta Morkaiko Mendizale Elkarteak elkarlanean antolatzen duten Karakatera Igoeraren 9. edizioa bihar, zapatua, jokatuko da. Parte hartu nahi dutenek, egunean bertan eman ahal izango dute izena, probaren hasiera baino ordu erdi lehenago beti ere. Lasterkariak goizeko 10:00etan abiatuko dira Plaza Handitik. Iazko irabazlea Gontzal Cuadrado gernikarra izan zen 32 minutuko denborarekin eta igoeraren marka onena, berriz, Jose Mari Fernandez "Suso" elgoibartarraren esku dago (29'43"). Behobia-Donostia lasterketa egin duten korrikalari asko forma puntu onean iritsiko dira Karakateko zitara eta eguraldiak laguntzen badu lasterketa orekatua ikusteko aukera izango da. Iaz, adibidez, denbora berdinean ailegatu ziren tontorrera lehen bi sailkatuak. Lehiaketari dagokionez, hiru kategoria izango ditu; sailkapen nagusia, emakumezkoak eta edadetuak (50 urtetik gorakoak). Sariak maila bakoitzeko onenarentzat izango dira.

# Tecnifuelle Elgoibar Eskubaloi taldearen aurkezpena



**Tente, ezkerretik eskumara:** Jose Angel Fernandez de Arangis, Goiatz Leibar, Jorge Puente, Beñat Leibar, Igor Mendoza, Richard Blanco eta J. M. Ruiz (entrenatzailea).
**Makurtuta, ezkerretik hasita:** Igor Mancisidor, Jokin Alberdi, Haritz Sudupe, Joseba Sagasta, Oscar Gomez eta Gorka Luque.
**Argazkian falta dira:** Iosu Iriondo, Iker Astigarraga eta Oier Konde.

# EMAITZAK

## Futbola

Haundi 2 – Hernani 0 **(Pref.)**
Urola 3- Elgoibar 1 **(1. erreg.)**
Soraluze 0 - Elgoibar 0 **(Jub.)**
Mutriku 1- Elgoibar 1 **(Kad.)**
Sporting Herrera 0 Elgoibar 1 (Inf.)
Elgoibar 1 – Mutriku 3 **(Neskak)**
Pedrusko 1- Segura 1 **(1. erreg.)**

## Esku pilota

**Gipuzkoako Txapelketa**
Ansola/Balzola (Lagunak) **22 -** Pueyo/Rodriguez 7
Zabalegi/lrizar **15 -** Portu/Txurruka **22** (Lagunak)
Olalde/Idiakez 1 - Ulazia/lriondo **22** (Lagunak)

## Areto futbola

Jarrilleros 3— Kenci Elg. 2 **(Nazional A)**
Lanbroa 2— Ardituri 4 **(1. maila)**
Lojantzi 5— Lasarte 0 **(Jub.)**

## Eskubaloia

Pneumax Elg. 23— Pulpo 26 **(Jub. mut.)**
Tecnomeca Elg. 22— Pulpo 21 **(Kad. mut.)**
Gaur Elg. 28— Tolosa 8 **(Jub. mut.)**
Kukullaga 19— Cometel Elg. 13 **(Jub. nesk.)**
Kukullaga 19— Pagoaga Elg. 26 **(kad. nesk.)**
Ermua 19— Sanlo Elg. 12 **(Senior nesk.)**

## Saskibaloia

Lojantzi Elg. **70 –** Ordizia **49**

## Xakea

Bergara **2.5 –** Elgoibar X.T. **1.5**

## Idarraga kafeak 6. saria

**HAUNDIko jokalari erregularrena 02/03**

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1-Elkoro | 20 |
| 2-1. Gurrutxaga | 17 |
| 3-Jakes | 15 |
| 4-Gotzon | 14 |
| 5-Igartua | 12 |
| 6-Navarrete | 11 |
| 7-Caro | 9 |
| 8-Duarte | 6 |
| 9-Izagirre | 6 |
| 10-Leonardo | 5 |
| 11-Arenas | 5 |

# AGENDA

## Areto futbola, Kiroldegian

**Zapatua, 16**
**16:00** Kenci Elg. — Pedel F.S. **(Nazional A)**

## Futbola, Mintxetan

**Zapatua, 16**
**15:30** Elgoibar— Orioko **(Jub.)**
**17:15** Elgoibar—Zumaiako **(1. erreg.)**
**Domekia, 17**
**12:00** Elgoibar — Aurrera Ondarroa **(Kad.)**

## Esku pilota, Ikastolar

**Barixakua, 15**
**21:30** Lagunak 1— Lagunak 2 (Inf.)
**22:15** Lagunak — Zumaiako (Kad.)

## Eskubaloia, Kiroldegian

**Zapatua, 16**
**17:30** Sanlo Elg. — Salesianos **(Sen. nesk.)**
**19:00** Tecnifuelle — Escolapios **(Sen. mut.)**
**Domekia, 17**
**11:00** Pagoaga Elg. — Zarauz **(Kad. nesk.)**
**12:30** Cometel Elg.—Zarauz **(Jub. nesk.)**

## Xakea, Pista Beltzear

**Zapatua, 16**
**16:00** Elgoibar - Goierri

# merkatu txikia



## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresak segurtasun arduraduna behar du. Erref. 90376/2

Lea-Artibaiko enpresak sozietate publikorako gerentea behar du. Erref. 91802/1

Durangaldeko enpresak PVC arotza behar du. Erref. 90991/3

Durangaldeko enpresak txoferra behar du. Erref. 91042/2

Durangaldeko enpresak CNC operasorea behar du. Erref. 91258/1

Arrasateko Formakuntza Zentruak sukaldaritza begiralea behar du. Erref. 90722/3

Urola Garaiko enpresak metrologia irakaslea behar du. Erref. 89492/7

Durangaldeko aldi baterako enpresak kalitate arduraduna behar du. Erref. 90471/2

Durangaldeko enpresak CNC operadorea behar du. Erref. 90501/1

Hobetuz Fundazioak administrari laguntzailea behar du. Erref. 91078/2

Donostiako enpresak ingeniaria behar du. Erref. 90003/2

Bilboaldeko enpresak programatzailea behar du. Erref. 89482/2

Iruñeko Formakuntza Zentruak energia berriztaileen irakaslea behar du. Erref. 90436/3

Bilboaldeko enpresak programatzailea behar du. Erref. 89939/2

Bilboko enpresak txaparako langilea behar du. Erref. 90397/3

Bilboaldeko enpresak Oracle programatzailea behar du. Erref. 89479/2

Bilboaldeko enpresak teknikaria behar du. Erref. 90633/1

Donostialdeko enpresak topografOa behar du. Erref. 90964/1

Donostialdeko enpresak sendagilea behar du. Erref. 87878/7

Debabarreneko enpresak zaintzailea behar du. Erref. 90375/2

Hobetuz Fundazioak teknikaria behar du. Erref. 91083/1

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (PeioJuaristil 943 74 80 19 edo IMH (Nora Raman) 943 74 41 32 telefonora.

## Lana

ESKAERA

Erizaina eskaintzen da pertsona nagusiak edo gaixoak zaintzeko, etxean zein ospitalean. 652 76 86 73

Esperientziadun emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. tr 943 74 22 01

• Astegunetan arratsaldez lan egingo nuke. a 637 51 22 24

♦ Neskak bere burua eskaintzen du arratsaldez etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. tr 629 98 81 74

♦ Tabernan lan egingo nuke. Esperientzia daukat eta euskaraz badakit. 1T 699 18 32 99

♦ Neska astelehen, ostegun eta ostiraletan garbiketa lanak egiteko prest. Tr 699 00 66 19

♦ Emakumea sukaldari lanak egiteko prest. Hotelean lanean aritua. Esperientzia pintxo eta menuetan. a 943 74 32 26

ESKAINTZA

* Mekanografoa behar da. Ts. 943 74 11 82 (Goizeko 8:30etik 9:00etara deitu). Joseba.

♦ Esperientziadun kamareroa behar da asteburuetarako. Tr. 943 74 37 71

Barrarako laguntzailea behar da. euskara jakitea baloratuko da.z. 943 74 07 45 (16:00etatik aurrera)

## Etxebizitzak

Logela bat alokatzen dut. 71- 699 91 31 69

• Hiru logelatako etxea alokatzen dut Elgoibarren. 17 943 74 27 47 (20:00-21:00)

*62 m2ko etxea salgai. 3 logela, jangela, komuna, berogailua, ganbara. Amueblatua. Ubitarte Plazan. 17 659 77 72 27

• Etxea salgai Kalamua 2, kalean. 100m². a 649 25 90 51

* Logela bat alokatzen dut. tr 943741881

* Etxebizitza hartuko nuke alokairuan bi hilabetetarako. 77 943 74 23 68

• 35m²ko etxea salgai San Frantzisko kalean. Sukaldea eta gela eskaileraz banatuta. Merkea. 13. 655 71 20 21 (20:00-21:00)

• San Frantzisko kalean, egoera onean dagoen etxea salgai. zr 656 72 47 82 (20:00-22:00)

Seme-alabarik gabeko bikote gazte batek etxea alokatuko luke Elgoibar edo inguruetan. tr 616 37 03 23

## Bestelakoak

• Gabon Zahar Ferian zilar koloreko pultsera galdu nuen, harri urdinekin. 7t2 686 17 89 90.

* Esegita zeuden panazko praka marroi batzuk galdu dituenak, jo dezala Udaltzaingora.

♦ Bi txakur gordetzeko terrenoa edo txabola hartuko nuke. Ordaintzeko prest. .2 943 74 04 65. (gauez). Dani.

• Urrezko belarritakoa galdu dut. Perla zuria eta harribitxi bat ditu. Saritua izango da. tr 943 74 14 33.

"NV Metal" taldea osatzeko kideak behar dira. tr 699 38 59 95. Jon.

* Mobila galdu dut. tr 943 74 03 32. Iñigo.

• Klasifikadore bat aurkitu dute Udal burutegian. Kontabilitateko eta ekonomiako irakasgaiak ditu. Galdu duenak, bertara jo dezala.

• Marka guztietako bizikletak konpontzen dira. Prezio onean. 1T 943 75 62 35/ 943 74 40 31.

## Lokalak

• 100m². inguruko lokala alokatzen dut Sigmako Industrialdean, Xixilion kalean. .11- 659 94 03 58

♦ Neska talde batek lokal oso merkea hartuko luke alokairuan. tr 658 74 66 11 (16:30etatik 19:00etara)

* Ura daukan lokal txikia erosiko nuke. Tr 629 626 955

## Salerosketak

*Opel Zafira TDI salgai. 11. 659 77 72 27

• Urkotronik markako goxoki makina salgai. Urte eta erdi. Tenperatura bikoitza. Merkea. .cr 655 71 29 59

Keroseno txuriko berogailua salgai. Bi urte. 90 euro 660 08 47 38

®2. eskuko ziklomotore merkea erosiko nuke. tr 647 25 47 51

• Bebe car, haurrentzako aulkia salgai. Kapazoa, aulkia eta osagarriak. 22r 943 74 05 54

+ Opel Calibra 2.0i salgai. 46.000 km, motor berria, extrak. SS-3227-AP 21. 651 70 07 54

♦ Mitsubishi Montero luzea salgai. Oso egoera onean. • 943 13 30 64/639 05 46 70

♦ 2. eskuko baxu elektrikoa erosiko nuke prezio ekonomikoan. 647 25 37 68

• CD-Radiocassete-a salgai. Alpine TDA-75 GOR. 3 urte, 12 CDtako kargadorea eta Kenwood bozgorailuak. 450n '17 943 81 65 35

• 99. urteko Trial-eko motorra salgai. Montesa Cota 315, matrikulatua. 2.700B Botak eta olioa oparitzen ditut. a 660 42 48 55

• 98. urteko azaroko Seat Cordoba TDI salgai. a 669 02 63 55

* Opel Corsa SS-X salgai. Oso merke. 680 11 29 38

## Partikularrak

• Klase partikularrak ematen ditugu. tr 616 05 99 86/625 42 05 49 (Olatz eta Bidatz)

• Klaseak emango nizkieke 16 urte arteko umeei. Tr 943 74 27 78 (Saioa)

## Garajeak

• Garajea salgai Leku Ederren. .zr 943 74 17 14

* Garaje marraduna salgai Arregitorren. Prezio interesgarria. tr 943 74 07 62/609 40 25 86

• Garajea hartuko nuke alokairuan Ikastola inguruan. isr 669 09 45 05

• Garaje marraduna salgai Leku-Ederren. tr 943-74 08 44/610 28 74 82

♦ Garaje itxia alokatzen dut. 1T 943 74 17 02

• Garaje alokatzen da San Roke 5ean. 1:* 943 74 09 81

## Agurrak

• Zorionak tio **Bittor,** urteak betetzen dituzulako. Asmatu noren partez! Muxu handi bat.

• Zorionak **lon Rodriguezi,** hilaren 1 ln urteak bete zituelako. Gurasoen eta arreba Eiderren partez.

**OHARRA:**

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.



• Zorionak **Andoni,** azaroaren 13an, 5 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki Urtziren partez.



• Zorionak **Ane Sotari,** gaur hilak 15, 2 urte betetzen dituelako. Maitasun handiz, familiakoen eta bereziki gurasoen eta lehengusu-lehengusinen partez. Egun ona pasal



• Zorionak gure **Aneri,** gaur urtebete egin duelako. Maitasunez zure ahizpa Noraren eta gurasoen partez.



• Zorionak **Aritz Cerezori** azaroaren 12an 7 urte bete zituelako. Familiakoen eta Enekoren partez.



* Zorionak **Imanol,** hilaren 12an, 4 urte bete zenituelako. Gurasoen eta anaia Andoniren partez.



• Zorionak **lon,** hilaren 17an, 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki Nerearen partez.



• Zorionak **Maialen Gallastegiri,** hilaren 17an, 8 urte beteko dituelako. Familiakoen eta bereziki Maitaneren partez. Mila kilo muxul



• Zorionak **Miren,** hilaren 13an, 12 urte bete zenituelako. Gurasoen eta ahizpa Idurreren partez.



• Zorionak **Neska handi, 5** urte ez dira egunero egiten eta. Aitxitxen partez.



• Zorionak **Zorione,** asteazkenean urte bat bete zenuelako. Familiaren eta bereziki Aitor, Maier, Ainhoa eta Juleneren partez. Muxu handi bat.



• Zorionak **Unai** eta **Asier.** Eskerrak argazkiak ditugun zuek ikusteko. Kontuz zapatuko juergarekin.

Ogazte informazioa

*Elgoibarko Gazte Infortnazio Gunea Kultur Etxean. Bigarren solairuan. Tel. 943 741 461 Ordutegia: Astelehena-asteartea- osteguna-ostirala: 17:00-20:00 Larunbata: 10:00- 14:00*

### BEKAK

**Kanpo-merkataritzako praktikak**
Ekonomia Ministerioak Espainiako esportatzaile elkarteen egoitzan kanpo-merkataritzako praktikak egiteko 13 beka eskaini ditu. Epea: azaroak 20.

**Alemanian ikastaroak**
Alemaniako unibertsitateetan udako ikastaroak egiteko bekak. Beka hauen helburua ikasleek Alemaniari buruz dituzten ezagutzak sakontzea da. Epea: azaroak 29.

### JARDUNALDIAK

**Elkartasunaren jaialdia**
Donostiako Udalak antolatuta "Donostia Munduen Artean" izeneko Elkartasunaren jaialdia. Ekitaldi desherdinak antolatu ditu azaroa eta abendurako.

### IKASTAROAK

**Hezkide eskola**
Hezkide Eskolak ikastaro desberdinak antolatu ditu: talde dinamiken eta talde prozesuen ikastaroa; psikomotrizitatea edadedun pertsonekin; eta gaixotasun mentalarekin lan egiteko jarraibideak. Bestalde, edadedun pertsonekin lan egiten duten profesionalentzako eskulan tailerra antolatu du. Epe desberdinak daude.

### LEHIAKETAK

**Web orri pertsonalak**
Internet Erabiltzaileen Elkarteak orrialde personal hispano onenarentzako saria antolatu du. Diseinu grafikoa, nabigaziorako erraztasuna, komunikazioa, edukien kalitatea eta sorkuntza gaitasuna baloratuko dira. Epea: abenduak 20.

**Desnivel literature lehiaketa**
Mendizaletasunari, bidaiei eta abenturei buruz hitz egiten duten gazteleraz idatziko narrazio edo saiakerak aurkeztu bchar dira: Saria: 6000_. Epea: 2003ko urtarrilak 15.

### LANA

**Obra eta zerbitzuetako langilea**
Csurbilgo Udalean obra eta zerbitzuetako langile (ehorzle) bat kontratatzeko oposizio lehiaketa. Eskola ziurtagiria eta euskarako 1. hizkuntza eskakizuna eskatzen da. Epea: azaroak 25.

**Administrari laguntzaileak**
Nafarroako Gobernuak 11 administrari laguntzaile lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Eskola Graduatua edo Lehen Mailako Lanbide Heziketako titulua eskatzen da. Epea: azaroak 25

**Zuzenbidean lizentziatuak**
Zizurkilgo Udalak aldi baterako Administrazio Orokorreko Teknikari lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Zuzenbideko lizentziatura eta euskarako 3. hizkuntza eskakizuna eskatzen dira. Epea: azaroak 25.

## Jubilatuen astea

**Azaroak** astelehena
**18:30** Itxaropena abesbatzaren kontzertua
Jubilatuen Biltokian

. martitzena
**17:30** Txokolatada
Jubilatuen Biltokian

**Azaroak 20.** eguaztena
17:30 Gabonetako 40 otarraren zozketa
Jubilatuen Biltokian

**Azaroak 21,** **eguena**
**14:00** Bazkari Berezia
Ondoren, 80 urtetik gorakoei, hauen ezkonkideei eta urrezko ezteiak egiten dituztenei omenaldia.

**Azaroak 23,** zapatua
**16:30** Kina Berezia
Jubilatuen Biltokian

**Azaroak 24** domekia
**12:30** Hildako jubilatuen omenezko meza
San Bartolome parrokian
**18:00** Dantzaldia Gelatxorekin

## 15 BARIXAKUA

19:00 **TAUPADA ANTZERKI TALDEAREN ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
"Taupada 25 urte antzerkiaren bihotzean"
Kultur Etxeko sotoan

22:00 **ZINE EMANALDIA EMAKUMEENTZAT**
"**Como** agua para chocolate" (gazteleraz)
Hizlaria: Eskarne Larrinaga, sexologo eta psikologoa
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## 16 ZAPATUA

10:00 **KARAKATERA IGOERA**
Irteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko M.T.



11:30 **EA-REN LOKAL BERRIAREN INAUGURAZIOA**
Jausoro plazan

## 17 DOMEKIA

16:30 **"TITIBILITI" ANTZEZLANA (UMEENTZAT)**
Taldea: Bederen 1 Antzerki Taldea
Herriko Antzokian

## 19 MARTITZENA

19:00 **ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
Txotxongilo Artegintza
Corado Masacci-ren lana
Kultur Etxean

## 20 EGUAZTENA

19:00 **HITZALDIA**
"Iheslarien kolektiboaren egoera larria" Kultur Etxean
Antolatzailea: Askatasuna

## 21 EGUENA

19:30 **SANTA ZEZILIA KONTZERTUA**
Musika Eskolako auditorioan

19:30 **HITZALDIAK**
Hizlariak: Jone Goirizelaia, Sozialista Abertzaleakeko kidea, Emilio Olabarria, PNVko legebiltzarkidea
Kultur Etxean
Antolatzailea: Oinarrizko Eskubideen Aldeko Plataforma

## 22 BARIXAKUA

19:00 **KONTZERTUA**
Itxaropena Abesbatza
Mezaren ondoren
Udaletxeko arkupeetan




## "Smoking room"

**Zuzendaria: Julio Wallovits-Roger Gual.**
**Antzezleak: Eduard Fernhdez, Juan Diego, Chete Lera.**
Zuzendariak bata katalana eta bestea argentinarra, biak publizitatearen munduan jardunak eta esperientzi arrakastatsuez babesturik burutu dute film arriskutsu hau. Gaia lan munduan kokatzen da eta aldarrikapen argiekin; errespetua eta duintasuna lortzeko beharrezkoa den borroka, alegia. Egiten diguten proposamen honetan, oinarria eta aberastasuna elkarrizketetan eta aktoreen antzezlanean legoke.

## HITZALDIAK

**Ione Goirizelaia eta Emilio Olabarria**

Elgoibarko Oinarrizko Eskubideen Aldeko Taldeak antolatuta, Ione Goirizelaia, Sozialista Abertzaleak taldeko kideak, eta Emilio Olabarria, EAJ-PNVko legebiltzarkideak, hitzaldi bana emango dute azaroaren 21ean, ostegunean, Kultur Etxean, 1 9:30etan. Biak dira abokatuak, baina bakoitza gai baten inguruan mintzatuko da. Goirizelaiak Garzonen autoei buruz hitz egingo du eta Olabarriak, berriz, Alderdi Politikoen Legeari buruz. Oinarrizko Eskubideen Aldeko Taldea maiatzean sortu zen Elgoibarren Garzonen autoen eta Alderdi Politikoen Legearen kontra protestatzeko eta aldi berean, ezker abertzaleko hainbat erakunderen ilegalizazio prozesueen aurkako iritzia azaltzeko. Honakoa antolatzen duten bigarren ekintza garrantzitsua da. Lehenengoa oinarrizko eskubideen aldeko sinadura bilketa izan zen. Gero, izen batzuen sostenguarekin BARREN aldizkarian publikatu zen dokumentuaren laburpena.





**Elgoibarko iheslarien egoera**

Askatasunak antolatuta "Iheslarien kolektiboaren egoera larria" izenburuko hitzaldia entzun ahal izango da datorren asteazkenean, azaroaren 20an, Kultur Etxean. Besteak beste, Elgoibarko 3 iheslariren egoeraz hitz egingo da 19:00etan hasiko den hitzaldian.

## INAUGURAZIOAK

**EAren lokal berria**

Elgoibarko Eusko Alkartasuna alderdiak elgoibartar guztiei jakinarazten die, hilaren 16an, zapatuan, lokal berria inauguratuko dutela Jausoro Plazan. Goizeko 11:30ean hasiko da inaugurazioa eta bertara gerturatu nahi duten guztiak ongi hartuak izango direla zabaltzeko eskatu digute.

# zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"La caja *SOT*"
15, barixakua: 22:15
16, zapatua:19:30-22:15
17, domekia: 19:30-22:15
18, astelehena: 22:15

"Smoking Room" (Zine Kluba)
19, martitzena: 21:30
21, eguena: 22:15

**"El viaje de Carol"**
22, barixakua: 22:15

**EIBAR**
**Unzaga**

**"Deuda de sangre"**
8, barixakua: 19:30-22:15
9, zapatua: 17:00-19:30-22:30
10, domekia: 17:00-19:30-22:30
11, astelehena: 19:30-22:15
12, martitzena: 19:30-22:15
13, eguaztena: 19:30-22:15

**"Insomnio"**
8, barixakua: 19:30-22:15
9, zapatua: 17:00-19:30-22:15
10, domekia: 17:00-19:30-22.15
11, astelehena: 19:30-22:15
12, martitzena: 19:30
13, eguaztena: 19:30

"Un tinal **made in Hollywood**"
8, barixakua: 19:30-22:30
9, zapatua: 19:30- 22:15
10, domekia: 19:30-22:15
11, astelehena: 19:30
12, martitzena: 19:30

9, zapatua: 17:00
10, domekia: 17:

**"Pizza, Birra, Faso**
14, Eguena: 20:00 (Z.K.)



## "La caja 507"

**Zuzendaria: Enrique Urbizu.**
**Antzezleak: Antonio Resines, Jose Coronado, Goya Toledo.**

Modesto banketxe batean lan egiten duen gizon zintzo eta langilea da. Egun batez, lapurrek segurtasun kaxak lehertu eta bertan giltzaperatuko dute Modesto. Kasualitate honek 507 zenbakidun segurtasun kaxak gordetzen dituen dokumentuak ikusteko aukera emango dio. Dokumentu hauen bitartez jakingo du bere alabaren heriotza ez zela berak pentsatzen zuen moduan istripuz izan. Rafael, berriz, kaxa errekuperatzeko ardura duen polizia gupidagabe eta ustela da. Bien bideek bat egingo dute 507 kaxa berreskuratzeko.

# erretratu zaharra





Aste honetako erretratu zaharra herritar hatek laga digu. 1967. urtekoa da, San Bartolome jaien astean ateratakoa, hain zuzen ere. Bertan agertzen den ezagun koadrila honek bazkal aurretik atera zuen argazkia Plaza Handiko frontoian. Txikiteoa basteko prest zeudela aipatu digu argazkiaren jabeak eta baita goiz xamar ateratakoa izango dela gaineratu ere, " erretratuan jende gutxi agertzen da-eta". Argazkian agertzen diren bi lagun pilotari profesionalak zirela azaldu digu, "Agustin Arakistain zesta puntako pelotari profesionala zan eta Etxabe XI. berriz, eskuzko pelotarixa"

Hona hemen argazkian agertzen direnen izen-abizenak:

Zutik, ezkerretik eskumara: Leoncio Gabilondo (t), Juanito Gorostiza, Antonio Astigarraga, Bibiano Artetxe, zumaiarra, Jesus Ibañez (t), Agustin Arakistain eta Jose Maria Gabilondo (t).

Makurtuta, ezkerretik hasita: Xabier Yeregi (t), J. Etxabe eta Canuto Gabilondo (t).



*ESKERTZA*

*2002ko azaroaren 2an, 87 urte zituela hil zen*

*MARIA IRIONDO BERGARETXEren*

*sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*

*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*Nere herriko*
*neskatxa maite...*

**Betiko lagunak**






" nucllerlec,s-A.

**GAS INSTALAZIOAK**

ZALEFAX.ZIOA

# NaturGas .

Bezeroaren arretarako eskualdeko
BULEGO BERRIA ZABALDU DU

**URKIZU 11, BEHEA — 20600 EIBAR Tel. 943 20 89 96 — Tel. / Faxa. 943 20 67 87**

*BILBO (Tel. 94 475 73 71) —— IRUN (Tel. 943 63 38 75)*



## ZURE ORDENFIGRILUAK ZINTZILIK UZTEN BF1ZRITU...




**DEITU KZIaguntzara**

**Tel.: 902 544 545**

**www.kzlaguntza.net**

**KZIaguntzak,** informatika orientazioko doako zerbitzu berriak, ordenagailuen munduarekin zerikusirik duen edozein zalantza argitzen lagunduko dizu.

**ARRETA ORDUTEGIA**
**KZIaguntza**
Igandetik ostegunera:
10:00etatik 22:00etara
Ostiral eta larunbatetan:
10:00etatik 24:00etara

aurrera doan herria

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

:-) eushadi

ogun-N. 11,

# LEIHOAK ISOLATZEN DITUGU

## HAIZEA, HOTZA eta ZARATEN KONTRA



**GLASHER**

ALTZAIRU INOXIDABLEZKO BURLETEAK



Ieihoa isteaz bat, tentsatu eta zirrikitu guztiak estaltzen dituztenak, haizea, hotza, hautsa eta zarata eragotziz.



PISUZKO 3 ARRAZOI

IPINTZEKO AZKARRA eta GARBIA   BEROGAILUETAN AURREZPENA   3 BEHIN-BETIKO IRAUPENA

# INPE ABILIZANT E1L A ALEK SAILA

Terrazan eshllar; k n jojoi hormetas... raiea OAK ituzula?

SOLUZIOA DAUKAGU SIKU-SIKUAN





TRANSITABLEAK
ELASTIKOAK
TRANSPARENTEAK
DEKORAT1BOAK

ciSOLAnMETNDAKI

g as

Olaso 27, 47. pabilioia

943 743 094 · 943 744 354